**EIBARKO UDALAK UDAKO EUSKAL UNIBERTSITAREAK (UEU) 2014KO IRAILAREN 1ETIK 2015EKO UZTAILAREN 31RA ESKAINITAKO IKASTAROAK BURUTZEKO EBALUAZIO BAKOIZTUAREN ARAUBIDEZ ZUZENEAN EMANGO DITUEN DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

## Lehenengoa: Araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak emateko araubidea hauxe da:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzetarako lege orokorra.

b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

c) Eibarko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra.

d) Diru-laguntza hau arautzen duten oinarriak, Udalbatzak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zirenak 2010eko abuztuaren 10ean.

e) Deialdi honetan dauden klausulak.

## Bigarrena: Diru-laguntzaren xedea.

DLOaren 23.2 artikuluak eta diru-laguntza arautzen duten Oinarriek ezarritakoaren arabera, udal honek, Udako Euskal Unibertistateak 2014ko irailaren 1etik 2015eko uztailaren 31 bitartean eskainitako ikastaroak egiten dituztenei zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia egiten du.

## Hirugarrena: Diru-laguntza egotzi zaien aurrekontu-kredituak.

Diru-laguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hauek erabiliko dira:

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES MEDIANTE EL PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DIRECTA EN RÉGIMEN DE EVALUACIÓN INDIVIDUALIZADA DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR PARA REALIZAR CURSOS OFRECIDOS POR LA UNIVERSIDAD VASCA DE VERANO (UEU) DESDE EL 1 DE SEPTIEMBRE DE 2014 HASTA EL 31 DE JULIO DE 2015**

## Primero: Normativa reguladora.

La concesión de las subvenciones objeto de esta convocatoria se regula por:

a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.

d) Las Bases de la presente Convocatoria, aprobadas por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 21 de junio de 2010, y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 10 de agosto de 2010.

e) Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

## Segundo: Objeto de la subvención.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 de la LGS y en las Bases que regulan la subvención, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a las personas que hayan realizado cursos ofrecidos por la Universidad Vasca de Verano (UEU) desde el 1 de septiembre de 2014 hasta el 31 de julio de 2015

## Tercero: Créditos presupuestarios y cuantía de las subvenciones.

Se destinarán a la concesión de estas subvenciones las siguientes cantidades del presupuesto de la Corporación:

| DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA<br>*ACTIVIDAD SUBVENCIONADA* | KONTU SAILA<br>*PARTIDA* | ZENBATEKOA<br>*IMPORTE* |
|---|---|---|
| UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK ESKAINITAKO IKASTAROA/ *CURSOS OFRECIDOS POR LA UNIVERSIDAD VASCA DE VERANO* | 1.0800.480.01.335.10 | 1.500 € |

## Laugarrena: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

2014ko irailaren 1etik 2015eko uztailaren 31ra egindako ikastaroen matrikularen kostua.

## Cuarto: Gastos subvencionables.

Costo de la matrícula de los cursos realizados desde el 1 de septiembre de 2014 hasta el 31 de julio de 2015.

## Bosgarrena: Diru-laguntza emateko prozedura edo jardunbidea.

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

## Quinto: Régimen de concesión de la subvención.

La concesión se efectuará en régimen de concesión directa mediante el sistema de evaluación individualizada.

## Seigarrena: Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak:

2014ko irailaren 1etik 2015eko uztailaren 31ra Udako Euskal Unibertsitateak eskainitako ikastaroetan matrikulatuta egon diren eta honako baldintza hauek betetzen dituztenek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak beti ere DLOren 13. artikuluko debekuren baten eraginpean ez badaude:

UEUk Eibartik kanpo ematen dituen Udako Ikastaroak

- Langabetua ala ikaslea izatea.

- Eibarren erroldatuta egotea.

- Gutxienez, %85eko asistentzia betetzea.

UEUk Markeskoa ikastetxe nagusian eskainitako ikastaroak

- Eibarren erroldatuta egotea.

- Gutxienez, %85eko asistentzia betetzea.

## Sexto: Requisitos para solicitar la subvención.

En concreto, podrán acceder a estas subvenciones, siempre que no incurran en las prohibiciones establecidas en el artículo 13 de la LGS, las personas matriculadas en cursos ofrecidos por la Universidad Vasca de Verano desde el 1 de septiembre de 2012 hasta el 31 de julio de 2013 que cumplan los siguientes requisitos:

Cursos de Verano impartidos por UEU fuera de Eibar

- Estar en paro o ser estudiante.

- Estar empadronado/a en Eibar.

- Cumplir como mínimo una asistencia del 85%.

Cursos impartidos por UEU en su sede academica Markeskoa

- Estar empadronado/a en Eibar.

- Cumplir como mínimo una asistencia del 85%.

## Zazpigarrena: Prozedura instruitu edo bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.

Prozedura bideratu edo instruituko duena, Junkal Txurruka andrea, Eibarko udaleko Euskara Saileko zuzendaria izango da.

Diru-laguntzaren inguruko ebazpena ematea Eibarko udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute diru-laguntza ukatzeko; epe hori, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatuko da. Onuradunek diru-laguntza onartu egin dutela ulertuko da aurreko pasartean adierazitako epe horretan esanbidezko edo berariazko ukorik eman ez badute.

## Séptimo: Órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.

La instrucción del procedimiento se desarrollará por Junkal Txurruka, directora del Departamento de Euskara del Ayuntamiento de Eibar.

La resolución de la concesión competerá a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Eibar.

Los beneficiarios dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados a partir del día siguiente de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de los beneficiarios si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente su renuncia.

## Zortzigarrena: Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, deia egiten duen organoari zuzendu behar zaizkio, onuradunak edo haren ordezkari legez diharduenak izenpetuta, eta eskaerarekin batera honi erantsitako dokumentazioa ekarri behar da. Eskaerak aurkezteko epea 2015eko irailaren 30ean bukatuko da.

Eskaerak PEGORAn entregatuko dira (Herritarren Zerbitzurako bulegoa, Udaletxea, beheko solairua edo etxabea, Untzaga plaza).

## Octavo: Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el beneficiario o persona que lo represente, junto con la documentación aneja, finalizará el 30 de septiembre de 2015.

Las solicitudes se entregarán en PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía (planta baja del Ayuntamiento, plaza Untzaga).

## Bederatzigarrena: Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, eskaera egiten den egunetik zenbatuta, sei hilabetekoa izango da.

## Noveno: Plazo de resolución y notificación.

El plazo máximo para la resolución y su notificación será de seis meses desde la fecha de presentación de solicitudes.

## Hamargarrena: Eskaerarekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak diruz lagundutako jarduera justifikatzeko.

Diru-laguntza eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

a) Diru-laguntza eskaera orria, PEGORAn eta udal web orrian (www.eibar.eus) eskuratu ahal izango den ereduaren arabera.

b) Eskaera egin duen pertsonaren NAN-aren edo horren baliokide den agiri baten aldakia.

c) Frogagiria, eskatzaileak duen banku-kontuaren titu-laritatearena; eskaera egin duen pertsonaren identitatearekin bat etorri behar dena (ondoko dokumentu hauetatik edozein da balioduna: laburpen bankarioaren aldakia; aurrezki-libretaren aldakia; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo diru-laguntzarako eskaera-orrian bertan dagoen KONTU ZENBAKIA atalean bertan banketxeak emandako zigilua).

d) Onuraduna DLOren 13.2 artikuluak aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dioen erantzukizunezko aitorpena edo deklarazioa (eredua PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

e) Aitorpen arduratsua aurkeztu behar du onuradunak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela eta diru-laguntzak itzultzeagatik ez duela diru-ordainketarik egiteke utzi esaten (eredua PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

## Décimo: Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud para la justificación de la actividad subvencionada.

La solicitud para la obtención de la subvención deberá contener la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud de subvención, según modelo que se podrá obtener en PEGORA y en la web municipal (www.eibar.eus).

b) Fotocopia del DNI o documento equivalente de la persona solicitante.

c) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria del/de la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado “NÚMERO CUENTA” del impreso de solicitud de subvención).

d) Declaración responsable de no encontrarse el/la beneficiario/a incurso en las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la LGS (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.net).

e) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, www.eibar.net).

f) Udako Euskal Unibertsitatearen ziurtagiri originala, ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia izana egiaztatuko duena.

g) Matrikularen ordainketaren frogagiria.

h) Udako Euskal Unibertsitateak Eibartik kanpo ematen dituen ikastaroen kasuan, eskatzailea langabetua ala ikaslea dela frogatzen duen agiria.

## Hamaikagarrena: Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.

Espedientea bideratu duen organoari dagokio, eskaerak, deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebehar guztiak bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela egiaztatzea; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikuluaren arabera. Hamar eguneko epe luzaezin gehienezkoan eskatutako dokumentazioa ekarri ez edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenei, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

## Hamabigarrena: Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Eman daitekeen diru-laguntzaren zenbatekoa: matrikula kostoaren %50a da.

Diru-laguntzak emateko araubide honetan, aurrekontu-kreditua agortu eta eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko, diru-laguntzak egozten zaizkion aurrekontuaren kontu-saila gehitu egin daiteke.

## Hamahirugarrena: Onuradunak jaso duen diru-laguntzari eman behar dion zabalkundea.

Diru-laguntza hauen izaera berezia izanik, ez zaio onuradunari ikastaroa egiteko jasotako diru-laguntzaren publizitatea egitea eskatuko.

## Hamalaugarrena: Diru-laguntzaren ordainketa.

Ez da ordainketarik aurreratuko deialdi honen diru-laguntzetan. Onuradunaren aldeko betebeharra aitortu eta ordaindu ahal izateko, derrigorrezko baldintza izango da zuribidea edo justifikazioa deialdi honetan aurreikusitako moduan eta bertan adierazitako baldintzetan aurkeztea eta zuribidea Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduko 84. artikuluak ezartzen duen eran egiaztatzea.

f) Documento original expedido por la Universidad Vasca de Verano que certifique como mínimo una asistencia del 85%.

g) Justificante del pago de la matrícula.

h) En el caso de cursos de la Universidad Vasca de Verano impartidos fuera de Eibar, documento acreditativo de estar en paro o ser estudiante.

## Decimoprimero: Subsanación de defectos y preevaluación.

La comprobación de que la solicitud reúne los requisitos exigidos en esta convocatoria y de que se aporta la documentación a que se refiere el párrafo anterior competerá al órgano instructor que podrá requerir la subsanación de conformidad con el artículo 23.5 de la LGS. A quienes no aportaran la documentación requerida o no subsanaran los defectos después de requeridos en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles se les tendrá por desistidos de su solicitud.

## Duodécimo: Importe de la subvención.

El importe de la subvención que podrá concederse será del 50% del coste de la matrícula.

En este régimen de concesión de subvenciones, si una vez agotado el crédito presupuestario existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

## Decimotercero: Difusión de la subvención concedida por parte del beneficiario.

Dado el especial carácter de las subvenciones, no se exigirá la publicidad de la subvención del curso realizado por parte del beneficiario.

## Decimocuarto: Pago de la subvención.

No se anticiparán pagos en las subvenciones de esta convocatoria. La presentación de la justificación, en la forma y con los requisitos previstos en esta convocatoria, y su comprobación de conformidad en los términos establecidos en el artículo 84 del RLGS, será condición indispensable para que pueda procederse al reconocimiento de la obligación a favor del beneficiario y a su pago.

**Hanmabostgarrena Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administraziotik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.**

Diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziotik edo erakunde publikotik zein pribatutik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri, baldin eta diruz lagundutako jarduerak duen kostutik gorakoak ez badira, eta beste diru-laguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeenaren kaltetan gabe.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzekin bateragarria den diru-laguntza jaso dezakeen onuradunak, ezin gezurtatuzko moduan adierazi behar dio diru-laguntza hau eman dion organoari.

**Decimoquinto: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.**

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

El/la beneficiario/a que obtuviere una subvención compatible con las otorgadas al amparo de estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente.

**Hamaseigarrena: Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpena behin betikoa da eta administrazio-bideari amaiera ematen dio; horren kontra, jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epe bat dago berrazterketa-errekurtsoa sartzeko Ebazpena eman zuen organoaren aurrean, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sar daiteke Donostiako administrazio-auzi Aretoaren aurrean, Atotxako Justizia Auzitegia, Teresa de Calcuta plaza 1.

**Decimosexto: Indicación de si la resolución pone fin a la vía administrativa.**

La resolución pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la resolución, o interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de 2 meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, con sede en el Palacio de Justicia de Atotxa, sito en la Plaza Teresa de Calcuta nº 1.

**Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuen babesa.**

**Decimoséptimo: Protección de datos de carácter personal.**

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, eskaera egiten duen erakundeak deklaratzen du, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek diotena goitik behera onartzen dituela. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Eibarko Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta BAIMENA EMATEN DU datu horien erabilera soil-solik udal kudeaketetara mugatzeko. Hala ere, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei helaraz edo laga liezazkieke.

Con la presentación de la solicitud de subvención, la entidad solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Eibar y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Eibarren, 2015eko apirilaren 20an

Junkal Txurruka Arrizabalaga
Espedientearen instruktorea/ Instructora del expediente